



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko abuztuaren 21a

69. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Agoizko Udalar buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Mendabiako Udalar buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (15. or.).
- Nafarroako Comptos Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia. Behin-behineko izendapena (24. or.).
- Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina. Akats zuzenketa (24. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Agoizko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Agoizko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitaratu dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Agoizko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (3. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
 - IV.1. Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra. (4. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (4. or.).
 - IV.3. 2006ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (4. or.).
- V. Amaierako ondorioa (4. or.).
- VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (5. or.).
 - VI.1. Aurrekontuen egoera-orriak eta aldaketak (5. or.).
 - VI.2. Langileria (5. or.).
 - VI.3. Administrazio-kontratazioa (6. or.).
 - VI.4. Inbentarioa, ibilgetua (7. or.).
 - VI.5. Dirusarrerak (7. or.).
 - VI.6. Hirigintza (7. or.).

Eranskina. 2006ko abenduaren 31ko finantzen egoera-orriak.

I. Dirusarrerak eta gastuak kapitulu ekonomikoaren arabera (8. or.).

II. Aurrekontuko emaitzaren kalkulua (9. or.).

III. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2005eko eta 2006ko abenduaren 31n (10. or.).

IV. 2006ko ratioak (11. or.).

V. Egoera-balantzea 2006ko eta 2005eko abenduaren 31n (12. or.).

VI. Galdu-irabazien kontua 2006ko eta 2005eko abenduaren 31n (13. or.).

Txostenari aurkeztutako alegazioak.

Agoizko Udaleko alkate Francisco José Enguita Moros jaunak aurkezturiko alegazioak (14. or.).

Agoizko Udaleko alkate ohi José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko alegazioak (14. or.).

Agoizko Alkateak aurkezturiko alegazioei Comptos Ganberak emaniko erantzuna (15. or.).

I. SARRERA

2006ko urriaren 9an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak eskatuta, Comptos Ganberari eskatzea fiskalizazio txosten bat egin zezan, Agoizko Udalari buruz.

Eskari hori betetzeko, Comptos Ganberak 2007rako onetsitako jarduera programan sartu zen aipatu udalaren 2006ko kontu orokorraren fiskalizazioa.

Agoizko Udalak 13,2 km²ko azalera dauka. 2.175 biztanle ditu eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak (eurotan)	Aitorturiko eskubideak (eurotan)	Langileak 2006-12-31n
Udala	4.642.033,43	6.319.723,46	10

Udalak parte hartzen du Izagako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean eta Nafarroako Hiri Hondakinen Mankomunitatean, 10. eremuan.

Udalari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

- Nafarroako toki araubidea gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea.

- Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua onesten duena.

- 10/1998 Foru Legea eta 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoak arautzen dituztenak.

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 273 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administraziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenak sei atal ditu, sarrera barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa, eta laugarrenean, Kontu Orokorri, legezkontasunari eta finantza egoerari buruz dugun iritzia. Bosgarren atalean gure lanetik atera daitezkeen azken ondorioak aurkezten ditugu eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketak eta –kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Agoizko Udaleko langileei, lana burutzeko eman diguten laguntza-rengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, eta kontuan hartuta Nafarroako Parlamentuko Ele-dunen Batzarraren eskaria, Agoizko Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Agoizko Udalaren 2006ko Kontu Orokorrek fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta araei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Aplikagarri zaion legedia betetzen dela entitateak garatutako jardueran, 2006ko ekitaldian.

c) Agoizko Udalaren egoera finantzarioa 2006ko abenduaren 31n.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Comptos Ganberak, bere jarduera-programari jarraituz, Agoizko Udalaren fiskalizazioa egin du, 2006ko ekitaldiari dagokiona.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontu emaitza eta diruzaintza-gerakina.

- Egoerari buruzko balantzea.

- Galera eta irabazien kontua.

Aplikaturiko kontabilitate-araubidea da 273/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako toki administraziorako kontabilitate instrukzio orokorrak araututakoa.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren

fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, aurrekontuen eta finantza egoera-orri-
en edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdi nabarmenenak.

Gure lanean eragina izan duten mugak kontabilitate-sistema informatikoaren ondoriozkoak dira; izan ere, honek ez du bermatzen aurrekontuan agertzen diren eragiketa guztiak automatikoki kontabilitate orokorrean erregistratzea, bereziki ibilgetuaren osaerari buruzkoak. Halaber, gastuen proiektuen kontabilitate-modulurik ez duenez, ezinezkoa da zuzenean eskuratzea inbertsio-gastuen egoera eta jarraipena islatzen duen egoera-orria, baliabide atxikien eta, bereziki, finantzaketaren desbiderapenen xehetasunak agertzen dituena.

Udalaren kudeaketa hobetzeko gure ustez komenigarriak diren iruzkin eta gomendioak jasotzen dira txostenean.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Agoizko Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontua prestatzeko ardua, baita haren edukiarena ere, udalarena da, eta jasota dago txosten honen eranskinean.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

IV.1. UDALAREN 2006ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

2006ko abenduaren 31n, ondasunen inbentarioa eguneratu gabe dago. Hori dela eta, ezin izan dugu egiaztatu egoeraren balantzeko "Ibilgetua" izeneko ataleko saldoaren arrazoizkotasuna, 2006ko abenduaren 31n.

Udalak ez du beti aplikatzen sortzapenaren irizpidea eragiketak erregistratu eta egozteko. Hala, 2006ko ekitaldian kontabilizatu dira, kuxako irizpidea erabili izanaren ondorioz, 2005eko ekitaldiari zegozkion zenbait gastu, 2006an ordaindu direnak, eta, aldiz, ez dira kontabilizatu 2006an egin arren 2007an ordaindutako gastuak.

Aurreko lerroketan aipaturikoen ondorioak alde batera utzita, udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen du alderdirik behin-etan gastuen eta dirusarrerren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta araei jarraituz.

Nabarmentzekoa da 2007ko azaroaren 8an udaleko Osoko Bilkurak hasierako onespina eman ziola Udal Ondasunen eta Ondarearen Inbentarioari.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2006an udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. 2006ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Hasierako aurrekontua 5.587.160 eurokoa da eta behin betikoa, berriz, 8.865.102 eurokoa. Bete-tako gastuek eta dirusarrerak 4.642.033 eta 6.319.723 euro egin dute, hurrenez hurren. Gastuen betetze-maila ehuneko 52koa da eta dirusarrena ehuneko 71koa.

2006ko ekitaldian transferentziek udalaren dirusarrerren ehuneko 29 egin dute eta zergek eta tasek ehuneko 26. Bestalde, inbertsio errealeen besterentzetik heldu diren dirusarrerak ehuneko 42 egin dute.

2006ko ekitaldian, ohiko dirusarrerak -2.442.403 euro- ohiko gastuak -2.082.912 euro- baino handiagoak dira.

Epe luzeko zorpetzea, 2006ko abenduaren 31n, 221.438 eurokoa da.

Udalaren finantza egoeraren ezaugarriak, ekitaldia amaitzean, honakoak dira: zorpetze maila baxua -zorpetzea ehuneko 2,6koa da eta zorpetze muga ehuneko 15,3koa da-, eta, gainera, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 602.976 eurokoa, 2005ean negatiboa (-160.715,83 eurokoa) izan bazen ere.

V. AMAIERAKO ONDORIOA

Laburbilduz, ondorio orokor gisa esan dezakegu udalak behar bezala kudeatzen dituela bere aurrekontuak, nahiz eta hobetu egin beharko lituz-

keen zenbait prozedura, kontabilitatekoak eta barne-kontrolakoak.

Beraz, eta prozedura horiek hobetze aldera, udalak honela jokatu behar du:

a) *Prozedurak taxutu eta aplikatu behar du, udal inbentarioaren etengabeko eguneratzea eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lortzeko.*

b) *Egoera-balantzeko kontabilitate-saldoak udalaren ondasunen inbentariora egokitu behar ditu, behin inbentario hori eguneratuta.*

c) *Bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterlanak egin behar ditu, azken ekitaldietan egoniko inbertsioak, inbertsio horiek hurrengo ekitaldietan izanen dituzten mantentze-kostuak eta udalak eskura duen finantzaketa aztertze aldera.*

d) *Aurrekontuaren kudeaketaren barne kontrolako mekanismoak indartu behar ditu, egiten diren eragiketak behar den bezala erregistratzen direla bermatzeko.*

e) *Aurrekontuko gastuak eta dirusarrerak kontabilizatu behar ditu sortzapenaren eta izaera ekonomikoaren arabera, halako moldez non aurrekontu-betetzearen jarraipen egokia egiteko bidea irekiko den. Kredituen muga-izaera ere errespetatu behar du.*

f) *Inbertsioen egoera-orria prestatu eta jarraipena egin behar du, eta finantzaketa-iturriak eta, bereziki, desbiderapenak adierazi, baita inbertsioei atxikitako baliabideen egoera ere.*

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa, prozedura, kontabilitate- eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.1. AURREKONTUEN EGOERA-ORRIAK ETA ALDAKETAK

• *Aurrekontua eta plantilla organikoa ekitaldia hasi baino lehen onetsi behar dira.*

• *Kontu orokorra hurrengo ekitaldiko irailaren 1a baino lehen onetsi behar da.*

• *Prozedurak ezarri behar dira, kreditu aldaketen izapidetzea, eta halakorik balego kasuko argitalpenak ere, likidazioaren ekitaldiko abenduaren 31 baino lehen buka daitezten.*

• *Gogoratzea gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin negatiboa izateak finantzaketa beharra dakarrela berarekin eta, horrenbestez, ezin daitekeela inolaz ere hartu aurrekontuen aldaketak finantzatzeko baliabide gisa.*

VI.2. LANGILERIA

2006ko abenduaren 31n, udaleko langileria gastuek 466.290,00 euro egiten dute, eta udalaren guztizko gastuen ehuneko 10 dira. Gastu horiek ehuneko 11 gehitu dira aurreko urtekoen aldean.

Honela osaturik dago plantilla organikoa 2006ko abenduaren 31n:

Langileak, mailaren arabera	A	B	C	D	E	Guztira
Idazkaria	1					1
Kultura koordinatzailea		1				1
Administrari ofiziala			2			2
Administrari laguntzailea				1		1
Lehen mailako ofiziala			2			2
Zerbitzu anitzetako langilea				1	2	3
Guztira	1	1	4	2	2	10

Ondoko deialdiak aztertu ditugu:

- Administrari-laguntzaile lanpostu baterako oposizio-lehiaketa.
- D mailako lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa murriztua.
- Zerbitzu anitzetako lanpostu baterako oposizio-lehiaketa.

Espediente horien azterketaren arabera, indarrean dagoen araudia behar bezala betetzen da.

Udalak 2006an kontabilizatu ditu 2005eko azaroa eta Abendua, gizarte segurantzari dagokionez, eta horrek 7.151,65 euro egiten du.

PFEZaren atxikipenei dagokienez, hona gomendioa:

Langileei eta profesionalei eginiko PFEZaren atxikipenak Foru Ogasunean sartzeari ezarritako

Kontratua		Esleipena	
lorategi-guneen mantentze lanak	Laguntza	Negoziatua, publizitadeduna	51.150
Otik 3 urtera bitarteko eskolaurreko ikastetxearen kudeaketa	Zerbitzu publikoaren kudeaketa	Lehiaketa irekia	129.048

Espediente horien azterketaren arabera, indarrean dagoen araudia behar bezala betetzen da.

Horretaz gain, eta lagin gisara, egiaztatu dugu gastuak kasuan kasuko ordainagirian daudela oinarrituta, baina atzeman dugu beti ez dela erabili sortzapenaren irizpidea gastuak zein zergaldiri egotzi erabakitzerakoan.

Oro har, bigarren kapituluari eginiko gastu-egozketa egokia da, makina jasotzaile baten erosketa izan ezik, 6.099,15 euroren truke; izan ere, uste dugu egokiagoa dela hori inbertsioei buruzko seigarren kapituluari erregistratzea.

Hauxe gomendatzen dugu:

Kontratua		Esleipena	
Agoizko zeharbideko hirigunea hobetzeko urbanizazio eta esku-hartze artistikoko proiektua prestatzea	Laguntza teknikoa	Lehiaketa irekia	71.000
Suhiltzaile boluntarioen parkea eraikitze obra	Obra	Negoziatua, publizitadeduna	99.371
Otik 3 urtera bitarteko ikastetxea handitzeko lanak	Obra	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	189.990
Kiroldegia eraikitze lanak	Obra	Lehiaketa irekia	1.558.959
Hiru urterako planaren berriazko plana	Obra	Lehiaketa irekia	636.430
Goi presioko ur hornidurarako lanak. 1. eta 2. faseak	Obra	Lehiaketa irekia	2.087.531

epeen barruan, eta atxikipenen urteko adierazpe-nean (190. inprimakia) sartzeari atxikipena egin behar zaien ordainsariak dituzten langile guztien zerrenda.

VI.3. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan bereizten dira, batetik, zerbitzuak emateko, hornitzeko eta erosketak egiteko kudeaketa, eta bestetik, inbertsioak.

VI.3.1. Erosketak eta hornidurak nahiz zerbitzu-emate kontratuak

Zerbitzuak eta ondasun arruntak erosteagatik udalak aitorturiko betebeharrak ehuneko 22 egin dute gora, 2005. urtearekin alderatuta, eta 1.281.622,52 euro egiten dute. Udalaren 2006ko gastuen gutzitzkoaren ehuneko 28 egiten dute.

Espediente hauek aztertu dira:

• *Gastuak sortzen diren unean kontabilizatzea, kontuan hartu gabe noiz ordaintzen diren, eta aurrekontuko epigrafe egokian erregistratzea.*

VI.3.2. Inbertsioak

Agoizko Udalak 2006an eginiko inbertsioek 2.510.458 euro egiten dute, eta horrek gastuen gutzitzkoaren ehuneko 54 egiten du. Gastuen betetze-maila ehuneko 38koa da, aurrekontuko kapitulu guztietan baxuena. Horren arrazoia da, nagusiki, presio handiko ur hornidurarako obren betetze-maila baxua.

Espediente hauek aztertu dira:

Aztertutako laginetik ondoko alderdiak ondorioztatu ditzakegu:

Agoizko zeharbidean hiri-eremua hobetzeko urbanizazio eta esku-hartze artistikoko proiektua idaztea 2006an esleitu zen eta udalak urte horretan ere jaso zuen proiektua, ordainagiria 2007an egin bazen ere.

Eginiko azterketan atzeman dugu, halaber, badirela bi ordainagiri, ikastetxearen kanpoan eta barruan eginiko zenbait lani dagozkienak, eta euren baturak alde txikiz gainditzen duela esleipen zuzena egiteko zenbatekoaren muga.

Horretaz gain, alderdi hauek ere hobetu daitezke:

- *Kontratuaren esleipenaren publizitatea egitea, legez ezarritako epean, zenbatekoaren arabera hala dagokionean.*

- *Zuinketaren egiaztapenari buruzko akta egitea eta hura egiteko administrazio klausula partikularren orrian ezarritako epeak betetzea.*

- *Presako izapidetzea behar bezala justifikatzea.*

- *Behin betiko fidantza eratzeko, legean ezarritako gehieneko epea betetzea eta eraketa eta kontratuaren formalizazioa espedientean jasotzea.*

- *Kasuan kasuko jasotze-akta egitea.*

- *Kredituak badirela egiaztatzekeo agiria egitea.*

- *Zenbatekoen mugak kontuan hartzea kontratuzko mota desberdinak aplikatzerakoan.*

VI.4. INBENTARIOA, IBILGETUA

Udalak 2007an onetsi duenez ondasunen inbentarioa, hauxe gomendatzen dugu:

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta araztea, udalaren ondasunak behar bezala ager ditzaten, eta udalaren inbentarioarekin lotuta egotea ahalbidetuko duten prozedurak aplikatzea.*

VI.5. DIRUSARRERAK

2006an likidaturiko dirusarrerek 6.319.723 euro egiten dute. Horren ehuneko 42, 2.645.261 euro, inbertsioen besterentzeari dagokio, ehuneko 29 transferentzia arruntei eta kapital transferentziei, eta ehuneko 26 tributu bidezko dirusarrerei, tasei eta prezio publikoei.

Aztertutako tributu-dirusarreren laginean egiaztatu ahal izan denez, haiei buruzko araudian ezarritakoari jarraikiz likidatzen eta kobratzen dira, oro har.

Egiaztatu dugunez, lurzatiaren salmenta, 2.234.503 euroan egin, enkante publikoaren bidez egin da, aplikagarri zaion legedian ezarritakoari jarraikiz.

Berrikuspena eginda, ondokoak azpimarratu nahi ditugu:

- *Gure gomendioa da aldiro kontabilizatzea dirusarrerara guztiak, kontabilitatea tresna egokia izan dadin kudeaketarako.*

- *Zerga eta tasa desberdinei dagozkien erroldak kasuan kasuko ekitaldiaren barruan onestea eta kontabilizatzea.*

- *Hiri-lurren balioa handitzeari buruzko zerga-kontzeptuak ahalik eta azkarren likidatzea.*

- *Aurreko ekitaldietako zordunek eta hartzeko-dunek osatzen dituzten kontabilitate-saldoak aztertu eta araztea, bai aurrekontuetakoak, bai aurrekontuetatik kanpokoak, horiek udalaren esku-bideak eta betebeharrak behar bezala ager ditzaten.*

VI.6. HIRIGINTZA

Agoizko udal plana Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak emandako azaroaren 4ko 1505/2003 Foru Aginduaren bidez onetsi zen.

Udal plana izapidetzen ari zen bitartean indarrean sartu zen Lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea. Hori dela eta,

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Hirigintza plana aztertzea eta, beharrezkoa balitz, gaurkotzea, bete gabe dauden alderdiak Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritakora egokitze aldera.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

ERANSKINA: 2006ko ABENDUAREN 31ko FINANTZEN EGOERA-ORRIAK**I. DIRUSARRERAK ETA GASTUAK KAPITULU EKONOMIKOEN ARABERA****Dirusarrerak kapitulu ekonomikoen arabera**

Dirusarreraren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubide garbiak	% betetakoaren %	Kitatutakoa, guztira	% Kitatua,	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	503.000	0	503.000	538.639	107,09	269.832	50,10	268.807
2. Zeharkako zergak	307.000	256.381	563.381	708.961	125,84	322.222	45,45	386.740
3. Tasak, prezioak eta bestelako dirusarrerak	371.700	0	371.700	395.461	106,39	257.472	65,11	137.990
4. Transferentzia arruntak	843.360	11.926	855.286	782.618	91,50	692.187	88,45	90.431
5. Ondare dirusarrerak eta aprob. kom.	24.800	0	24.800	16.724	67,43	8.621	51,55	8.102
6. Inbertsio errealeen besterentzea	812.634	1.094.312	1.906.946	2.645.261	138,72	2.645.261	100,00	0
7. Kapital-transferentziak	2.724.666	1.445.115	4.169.781	1.077.237	25,83	639.517	59,37	437.720
8. Aktibo finantzarioak	0	470.209	470.209	154.822	32,93	154.822	100,00	0
Dirusarrerak, guztira	5.587.160	3.277.942	8.865.102	6.319.723	71,29	4.989.934	78,96	1.329.790

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebeharrak garbiak	Betetakoaren %	Egiteko dauden	% Kitatua,	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	468.570	21.000	489.570	466.290	95,24	459.163	98,47	7.127
2. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	1.166.100	133.707	1.299.807	1.281.623	98,60	1.139.873	88,94	141.750
3. Finantza-gastuak	12.800	4.000	16.800	14.486	86,22	14.486	100,00	0
4. Transferentzia arruntak	304.300	61.000	365.300	320.513	87,74	248.368	77,49	72.145
6. Inbertsio errealak	3.587.300	3.057.635	6.644.935	2.510.458	37,78	1.778.754	70,85	731.704
9. Pasibo finantzarioak	48.090	600	48.690	48.665	99,95	48.665	100,00	0
Gastuak, guztira	5.587.160	3.277.942	8.865.102	4.642.033	52,36	3.689.308	93,06	952.725

II. AURREKONTUKO EMAITZAREN KALKULUA

Aurrekontu emaitza

	2006	2005
Aitorturiko eskubideak	6.319.723,46	6.373.113,20
(Aitorturiko betebeharrak)	4.642.033,43	7.013.773,57
Aurrekontu emaitza	1.677.690,03	-640.660,37
(Finantzaketaren desbideraketa positiboak)	0,00	0,00
Finantzaketaren desbideraketa metatu negatiboa	0,00	0,00
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko kredituak	0,00	0,00
Aurreko ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko betebeharrak	0,00	0,00
AURREKONTUKO EMAITZA BEHIN BETIKOA	1.677.690,03	-640.660,37

III. DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2005eko ETA 2006ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2006	2005
Dirusarreren aurrekontua: eguneko ekitaldia	1.329.789,78	1.044.530,04
Dirusarreren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	606.177,65	833.663,51
Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	513.038,93	754.865,79
Ordainketen itzulketak	0,00	0,00
(Dirubilketa zaileko eskubideak)	(586.713,70)	(764.293,02)
(Aplikatzeko dauden dirusarrerak)	0,00	0,00
Kobratzeko dauden eskubideak	1.862.292,66	1.868.766,32
Gastuen aurrekontua: eguneko ekitaldia	952.724,96	1.728.072,60
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	172.675,71	145.253,76
Dirusarreren itzulketak	0,00	0,00
(Aplikatzeko dauden gastuak)	0,00	0,00
Aurrekontuz kanpoko gastuak	280.474,06	237.982,65
Ordaintzeko dauden betebeharrak.	1.405.874,73	2.111.309,01
Diruzaintzako funts likidoak	1.317.770,31	81.826,86
Diruzaintza-gerakina, orotara	1.774.188,24	-160.715,83
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina.....(1)	-1.171.212,13	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	602.976,11	-160.715,83

(1) Zenbateko hori kontuen espedienteari buruzko kontu-hartzailletza txostenean jasota dago.

IV. 2006ko RATIOAK

Adierazlea	2005 (1)	2006
Dirusarrerren betetze-maila	%59,89	%71,29
Gastuen betetze-maila	%65,91	%52,36
Kobrانتzen betetzea	%83,61	%78,96
Ordaintzen betetzea	%75,36	%79,48
Zorpetze-maila	%51,05 (2)	%2,59
Zorpetze-muga	%0,81	%15,31
Zorpetze ahalmena	%-50,24	%12,73
Aurrezpen garbia	%-50,24	%12,73
Langileriaren indizea	%5,99	%10,04
Inbertsioaren indizea	%57,80	%54,08
Dirulaguntzekiko menpekotasuna	%73,03	%29,43
Dirusarrerak biztanleko	3.022	2.906
Gastuak biztanleko	3.326	2.134
Dirusarrera arruntak biztanleko	885	1.123
Gastu arruntak biztanleko	906	958
Tributu bidezko dirusarrerak biztanle bakoitzeko	490	755
Finantza-zama biztanleko	452	29
Zorra biztanleko	148	102

(1) Ikuskatu gabeko ekitaldia

(2) Kultur etxearen kredituaren alde aurreko amortizazioa jasotzen du.

V. EGOERA-BALANTZEA 2006ko ETA 2005eko ABENDUAREN 31n

AKTIBOA

Izena	2006	2005	Aldea
1· Ibilgetu materiala	19.360.132,87	20.004.510,14	-644.377,27
2 Ibilgetu ez-materiala	8.296,37	8.296,37	0,00
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	29.656.133,49	30.616.087,91	-959.954,42
Herri ondasunak	11.975,51	0,00	11.975,51
5 Finantza-ibilgetua	0,00	0,00	0,00
A) IBILGETUA	49.036.538,24	50.628.894,42	-1.592.356,18
7 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuez kanpoko zordunak	1.115.931,88	1.585.153,53	-469.221,65
8 Aurrekontuko zordunak	1.329.789,78	1.044.530,04	285.259,74
9 Finantza-kontuak	1.317.770,31	81.826,86	1.235.943,45
K ZIRKULATZAILEA	3.763.491,97	2.711.510,43	1.051.981,54
AKTIBOA, GUZTIRA	52.800.030,21	53.340.404,85	-540.374,64

PASIBOA

Izena	2006	2005	Aldea
1 Ondarea eta erreserbak	50.730.537,43	51.055.791,70	-325.254,27
2 Entregaturiko ondasun eta eskubideak	0,00	0,00	0,00
3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	442.417,87	-96.560,75	538.978,62
A FUNTS BEREKIAK	51.172.955,30	50.959.230,95	213.724,35
4 Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	221.438,39	270.103,10	-48.664,71
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	221.438,39	270.103,10	-48.664,71
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	452.911,56	382.998,20	69.913,36
6...Aurrekontuko hartzekodunak	952.724,96	1.728.072,60	-775.347,64
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	1.405.636,52	2.111.070,80	-705.434,28
PASIBOA, GUZTIRA	52.800.030,21	53.340.404,85	-540.374,64

VI. GALDU-IRABAZIEN KONTUA 2006ko ETA 2005eko ABENDUAREN 31n

	AZALPENA	2006	2005		Azalpena	2006	2005
61	Langile-gastuak	466.290,00	419.827,62	70	Salmentak	395.461,44	259.959,90
62	Finantza-gastuak	14.485,51	59.067,04	71	Ondasunaren eta enpresaren errenta	16.723,58	44.471,94
64	Kanpoko lan, homidura eta zerbitzuak	1.281.622,52	1.053.706,93	72	Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	1.042.066,50	681.668,56
67	Ohiko transferentziak	320.513,00	377.722,57	73	Erentaren eta ondarearen gaineko zerga aruntak	88.199,79	78.493,90
68	Kapital-transferentziak	0,00	0,00	76	Transferentzia aruntak	782.618,28	788.745,06
69	Kalkulaturiko gastuak	0,00	0,00	77	Kapitalaren gaineko zergak	109.015,45	4.222,97
				78	Bestelako dirusarrerak	0,00	0,00
D80	Ekitaldiaren emaitza korrante negatiboa	0,00	52.761,83	H80	Ekitaldiaren emaitza korrantea	351.174,01	0,00
D82	Inbertsioen salmentarengatiko galerak eta aparteko bestelako galerak	0,00	0,00	H82	Inbertsioen salmentarengatiko irabaziak	0,00	0,00
D83	Finantza-aktiboen salmentaren galerak	0,00	0,00	H83	Finantza-aktiboen salmentaren irabaziak	0,00	0,00
D84	Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	149.403,30	44.635,12	H84	Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	240.647,16	836,20
D89	Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa	0,00	96.560,75	H89	Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa	442.417,87	0,00

AGOIZKO UDALEKO ALKATE FRANCISCO JOSÉ ENGUIA MOROS JAUNAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK

Behin-behineko txostena

6. orrialdea

“Gure lanean eragina izan duten mugak kontabilitate-sistema informatikoaren ondoriozkoak dira; izan ere, honek ez du bermatzen aurrekontuan agertzen diren eragiketa guztiak automatikoki kontabilitate orokorrean erregistratzea, bereziki ibilgetuaren osaerari buruzkoak. Halaber, gastuen proiektuen kontabilitate-modulurik ez duenez, ezinezkoa da zuzenean eskuratzea inbertsio-gastuen egoera eta jarraipena islatzen dituen egoerorria, baliabide atxikien eta, bereziki, finantzaketaren desbiderapenen xehetasunak agertzen dituenena.”

Alegazioa:

Udalak urte natural bat baino gehiagoko iraupena duten inbertsio-gastuen egoera islatu du aurrekontua azaltzeko txostenean, hala aurreikusen baita 2/1995 Foru Legeko 201.1a) artikuluan eta 270/1998 Foru Dekretuko 7.a) artikuluan. Halaber, agertzen dira kontuen espedienteari buruz kontu-hartzaileak eginiko txostenean.

Informazio hori kontabilitate sistema informatikoaren zati da, informazio ez-egituratu gisa.

Agoitzen, 2008ko maiatzaren 8an

Alkatea: Francisco José Enguita Moros

AGOIZKO UDALEKO ALKATE OHI JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariarengandik jaso dugu Agoizko Udalarari buruzko 2006ko ekitaldiko behin-behineko fiskalizazio txostena, iragan apirilaren 30eko Ebazpenaren bidez onetsia. Agoizko alkate ohia naizen aldetik, ondoko alegazioak aurkezten ditut, horretarako ezarritako epean.

– Lehenik eta behin, Nafarroako Comptos Ganberari eskertu nahi diot behin-behineko txostena igorri izana. Aldi berean, nabarmendu nahi dut Ganberako funtzionarioek eginiko lana txosten hau prestatzeko.

– Nafarroako Comptos Ganberak Agoizko Udalararen auditoria egin zuen 1998an (1998ko urriko txostena), 1997ko ekitaldi ekonomikoari buruzkoa. Agoizko Udalak bete ditu txosten hartan eginiko gomendioak, orain eginiko behin-behineko txostenetik ondorioztatzen denez. Horrekin lotuta, konta-

bilite sistema informatizatua ezarri da; kobratzeke dauden saldo zordunak aztertu dira, lan horretarako langile bat kontratatuz lanaldi partzialean, agentzia exekutibo batekin eginiko kontratu baten bidez; udal inbentario berria osatzeko lanak hasi dira, eta abar.

Agoizko Udalak, Agoizko alkate izan naizen bi legegintzaldietan, kontuan izan du Nafarroako Comptos Ganberak eginiko txosten hura eta bertan eginiko gomendioak betetzen saiatu da, eta eginiko txosten berria irakurrita ondorioztatzen dut bete direla.

– Nabarmendu nahi dut udalak 2006ko abenduaren 31n zeukan egoera ekonomikoa, hau da, alkate izan nintzen bi legegintzaldien amaieran ia; izan ere, zorpetze-maila %2,6koa da, diruzaintzako gerakina 602.976,11 eurokoa eta aurrekontuaren emaitza 1.677.690,03 eurokoa.

Urte hauetan guztietan Agoitzen aldaketa handiak izan dira, eta hori hala izan da pertsona, erakunde eta entitate askoren lanari esker. Bistakoa denez, horien artean dago udalak eginiko lana ere. Ahalegin ekonomikoa izugarria izan da, eta horren saria agerikoa da; izan ere, Agoitz bizi-kalitate ona duen herria da, herritarrentzat eta eskualde osoarentzat zerbitzuak dituenena. Nafarroako herri askorentzat ereduagarria da.

Inbertsio garrantzitsuak egin dira eta udalak beti bilatu du horietarako finantzaketa, udal kontuak egoera onean mantentze aldera.

Hori garbi aski geratu da eginiko txostenean.

Agoitzen, 2008ko maiatzaren 9an

José Javier Esparza Abaurrea

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA.

Francisco José Enguita Moros jaunak eta José Javier Esparza Abaurrea jaunak behin-behineko fiskalizazio txostenari aurkeztutako alegazioak jaso eta aztertu ondoren, Comptos Ganberak txostenaren edukia berrestea erabaki du.

Hala ere, alegazio horiei buruz, honako zehaztapen eta iruzkinak egin nahi ditugu:

Agoizko Udaleko alkate Francisco José Enguita Moros jaunak aurkezturiko alegazioari buruz, Comptos Ganberak berriro gomendatzen du kontabilitate-sistema informatikoan halako prozedurak ezartzeko, non ahalbidetuko baitituzte gastu-proiektuetan sartuta dauden finantzaketa atxikiko gastuen jarraipena.

Agoizko Udaleko alkate ohi José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko alegazioei buruz, horiek ez dute eraginik txostenaren edukian, zenbait gairi buruzko oharra eta argibideak baizik ez direlako.

Horrenbestez, txostena behin betikotzat jo da.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

Mendabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Mendabiako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

VI.1. Alderdi orokorrak (17. or.).

VI.2. Inbentarioa-lbilgetua (17. or.).

VI.3. Langileria (18. or.).

VI.4. Administrazio-kontratazioa. (18. or.).

VI.5. Hirigintza. (19. or.).

Eranskinak.

1. eranskina.- Dirusarrerak eta gastuak kapitulu ekonomikoen arabera (20. or.).

2. eranskina.- Aurrekontuko emaitzaren kalkulua (20. or.).

3. eranskina.- Diruzaintza-gerakinaren egoerorria 2006ko abenduaren 31n (21. or.).

4. eranskina.- 2006ko ratioak (22. or.).

5. eranskina. Balantzea 2006ko abenduaren 31n (23. or.).

Mendabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (15. or.).

II. Helburua (16. or.).

III. Norainokoa (16. or.).

IV. Iritzia (17. or.).

IV.1. Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra. (17. or.).

IV.2. Legezkotasuna (17. or.).

IV.3. 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera. (17. or.).

V. Amaierako ondorioa (17. or.).

VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (17. or.).

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak Vianako Udalaren 2006ko Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du.

Mendabiako Udalak 3.757 biztanle ditu, eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2006-12-31n
Udala	3.821.253	5.360.587	23

Udala sarturik dago Jurramendiko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak. Halaber, sartuta dago Elizagorria, Mendabia, Sartaguda eta Sesmako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean, eta haren bidez ematen du, besteak beste, etxez etxeko laguntza.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako toki araubidea gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea.
- Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua.
- Kontratu publikoei buruzko foru araudia.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administraziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Udalaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa; eta, laugarrenean, Kontu Orokorrari, legezketasunari eta finantza egoerari buruz dugun iritzia. Bosgarren atalean gure lanetik atera daitezkeen azken ondorioak aurkezten ditugu eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta –kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Halaber, txostenarekin batera bost eranskin doaz, non jasotzen diren dirusarrerak eta gastuak, kapituluaren arabera, aurrekontuen emaitzaren eta diruzaintzako gerakinaren kalkulua, zenbait ratio, eta auditaturiko ekitaldian udalak zuen balantzea.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu udaleko langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Mendabiako Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen Kontu Orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauari jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak eginiko jarduerari aplikagarri zaion legeriaren betetze-maila.

c) Erakundearen egoera finantzarioa 2006ko abenduaren 31n.

Txostenak biltzen ditu udalaren antolamendua, barne kontrola eta kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jo ditugun iruzkin eta gomendioak.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Mendabiako Udalaren 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza eta diruzaintza-gerakina.
- Egoeraren balantzea.
- Galera eta irabazien kontua.

Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka.

Beraz, eginiko lanak hauxe izan du arretagai: dirusarrerari eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, horretarako aztertuz antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkien hainbat puntu.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz, eta aurreko urteetako lanetan agerian utzi diren baldintzen eta arazoaren arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean, laginen tekni-

ka, edo kontusail nahiz eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa, erabili da.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Mendabiako Udalaren 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren prestaketa eta edukia.

Gure azterketan oinarriturik, honako iritzi honetara iritsi gara:

IV.1. UDALAREN 2006ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

- Udalaren ondasunen inbentarioa gaurkotzeke dago.

Arestian aipaturikoaren ondorioak alde batera utzita, udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta araei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2006an entitatearen jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezketasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. 2006ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA.

Hasierako aurrekontua 6.134.472 eurokoa da, eta behin betikoa, berriz, 7.034.978 eurokoa. Bete-tako gastuek eta dirusarrerak 3.821.253 eta 5.360.587 euro egin dute, hurrenez hurren. Gastuen betetze-maila ehuneko 54koa da, eta dirusarre-rena ehuneko 76koa.

Udalaren baliabideen ehuneko 38 transferentzia arruntei eta kapital transferentziei dagokie, ehuneko 33 inbertsio errealean besterentzeari eta ehuneko 22, berriz, zerga eta tasei.

Gastuen betetze-maila txikiaren arrazoia da, batez ere, 2006an izandako inbertsioen betetze-maila baxua, ehuneko 34koa; hala ere, horietako batzuk 2007an amaitu ziren.

Ekitaldia ixtean aurrekontuko emaitza doitua 477.576 eurokoa zen. 2006ko abenduaren 31n,

zorra 1.483.619 eurokoa zen. Ekitaldi horretan zehar ez da mailegu berririk eskatu.

Mendabiako Udalak 2006ko abenduaren 31n duen finantza egoeraren ezaugarriak honakoak dira: zorpetze maila baxua –zorpetzea ehuneko 3koa da eta badu zorpetzeko ahalmena, zorpetze muga ehuneko 16koa baita–, eta, gainera, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 1.525.702 eurokoa da.

V. AMAIERAKO ONDORIOA

Laburtuz, eta **amaierako ondorio gisa**, esan genezake udalak egokiro kudeatzen dituela bere aurrekontuak. Hala ere, udalak ondokoa egin beharko du:

- *Aurrekontuaren kudeaketaren barne kontroleko mekanismoak indartu eta osatu behar dira, egindako eragiketak ziurtatzeko eta bermatzeko; batez ere, saldoak berdinkatu eta berraztertzeari, kontabilitate printzipioei eta inbentarioak eguneratzeari dagokienez.*

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo bakoitzeko, gure aburuz udalak bete behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- *Aurrekontua eta hari dagozkion eranskinak onetsi behar dira haiek aplikatu behar diren ekitaldia hasi baino lehen.*

- *Diruzaintzako eta kontu-hartzaitzako eginkizunak bereizi behar dira, ahal den neurrian.*

VI.2. INBENTARIOA-IBILGETUA

- *Ondasunen udal inbentarioa eguneratu behar da.*

- *Udal inbentarioa etengabe eguneratzeko eta hura kontabilitatearekin konektatzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta aplikatu behar dira, ibilgetuari buruzko altak eta bajak kontabilitate eta dokumentazioa artxibatze prozedurak definituz eta ezarriz, kontu hauei aplikatzekoak zaizkien irizpideen arabera.*

- *Ibilgetuaosatzen duten kontabilitate-saldoak eta ibilgetua eskuratzeko jasotako diru-laguntzak aztertu eta garbitu behar dira, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

VI.3. LANGILERIA

2006ko langileria gastuek 975.000 euro egiten dute; alegia, aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 26, eta ehuneko 6 handitu dira aurreko urtearekin alderatuta.

Honela osatzen da plantilla organikoa:

	Mailak					Guztira
	A	B	C	D	E	
Idazkaria	1					1
Kirol-koordinatzailea		1				1
Administrari-ofiziala			2			2
Administrari laguntzailea				2		2
Udal agenteak eta beste zerbitzu batzuk			3			3
Mendiko zaindariak			2			2
Eskola-guneko atezaina				1		1
Igeltsero ofiziala				2		2
Traktore paladunaren gidaria				1		1
Zerbitzu anitzetako langilea					8	8
	1	1	7	6	8	23

Zerbitzu anitzetako langile lanpostu bat betetzeko kontratazio espedienteaz aztertu dugu, eta ondorioztatu dugu indarrean dagoen araudia modu egokian bete dela.

Kontu-hartzaile lanpostua hutsik dago plantilla organikoan eta haren eginkizunak beste langile batzuek egiten dituzte. Ez da lanpostu hori betetzeko prozedurarik gauzatu aplikagarri zaion araudiaren arabera. Honako hau gomendatzen dugu:

- *Nafarroako toki entitateen esparru orokorren barruan, kontu-hartzaile lanpostuaren egoera erregularizatzea.*

VI.4. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

Atal honetan xehakaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

VI.4.1. Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak.

Bigarren kapituluko gastuek 1.019.772 euro egin dute 2006an, 2005ean baino ehuneko 3 gehiago, eta hori da udalak eginiko osoko gastuaren ehuneko 27.

2006ko ekitaldian udalak ez du zerbitzurik kontratatu; hala ere, aztertu dugu "zurgintza lanen" kontratazioa, 2003an publizitatez gabe negoziatzen

turiko prozeduraren bidez esleitu zena, bai eta ordainagirien lagin bat ere, eta ondorioztatu dugu izapidetzea egokia izan zela.

VI.4.2. Inbertsioak.

2006an, inbertsioek 1.481.453 euro egin zuten, eta horrek udalaren urteko gastuaren ehuneko 39 egiten du.

Ondoko kontratazio-espedituentz aztertu ditugu, lizitazio aurrekontuekin batera:

- Ikastetxeetako lanak, 349.714 euro.
- Lizarra etorbideko eta Estación etorbideko zoladura eta espaloiak, 624.747 euro.
- Herriko zenbait kaletako zoladura, 115.276 euro.
- Zahar-etxearen inguruko kaleetako zoladura, 247.668 euro.

Lan horiek esleitzeko erabili den prozedura lehiaketa izan da eta lanak ez daude bukatuta. Azterketatik ondorioztatu dugu izapidetzea legeak ezarritako jarraikiz egin dela. Hala ere, gomendatzen dugu:

- *Kontratuen esleipenaren publizitatea egitea, ezarritako epean, zenbatekoaren arabera hala dagokionean.*

VI.5. HIRIGINTZA.

Mendabiako udal plana 2004ko ekainaren 18an onetsi zen behin betikoz, eta 10/1994 Foru Legearen arabera izapidetu zen.

Mendabiako udal plana izapidetzen ari zen bitartean indarrean sartu zen Lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea. Lege honek 3 urteko epea ezartzen du planak homologatzeko; horrenbestez, kontuan hartu ez diren balizko alderdiei dagokiez, aipatu xedapena gogorazi nahi dugu, bai eta ondokoei buruzkoak ere:

- *Hirigintza hitzarmenen erregistro bat sortzea, indarrean dagoen legeriak eskatzen duen dokumentazioarekin.*

- *Lurraren udal ondarearen erregistroa eta kontrola ezartzea.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 15ean.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

1. ERANSKINA.- DIRUSARRERAK ETA GASTUAK KAPITULU EKONOMIKOEN ARABERA**Dirusarrerak kapitulu ekonomikoen arabera**

Dirusareren kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Likidatua, guztira	Likidatua (%)	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	744.150		744.150	721.562	96,96	690.659	96	30.904
2. Zeharkako zergak	200.000		200.000	155.378	77,69	138.582	89	16.796
3. Tasak, prezio publikoak eta beste dirusarrera batzuk	285.100	100	285.200	309.334	108,46	292.473	95	16.861
4. Transferentzia aruntak	1.184.150	13.045	1.197.195	1.102.501	92,09	1.077.429	98	25.072
5. Ondare dirusarrerak eta apro. kom.	440.872		440.872	410.312	93,07	323.598	79	86.714
6. Inbertsio errealen besterentzea	1.700.000		1.700.000	1.745.940	102,70	5.939	0	1.740.001
7. Administrazio orokorrak entitateari transferitutakoa	1.041.200		1.041.200	915.559	87,93	154.498	17	761.062
8. Aktibo finantzarioak		887.361	887.361					0
9. Pasibo finantzarioak	539.000		539.000		0,00		-	0
Dirusarrerak, guztira	6.134.472	900.506	7.034.978	5.360.587	76,20	2.683.178	50,05	2.677.409

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebeharrak garbiak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Likidatua (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	1.037.550	31.000	1.068.550	974.871	91,23	965.161	99	9.711
2. Gastuak, ondasun aruntetan eta zerbitzuetan	1.160.732	13.145	1.173.877	1.019.772	86,87	950.337	93	69.435
3. Finantza-gastuak	35.280		35.280	12.329	34,95	12.328	100	0,5
4. Transferentzia aruntak	310.000	8.234	318.234	258.322	81,17	247.767	96	10.555
6. Inbertsio errealak	3.515.750	848.127	4.363.877	1.481.453	33,95	1.409.908	95	71.546
7. Kapital-transferentziak	600		600		0,00			0
9. Pasibo finantzarioak	74.560		74.560	74.506	99,93	74.506	100	0
Gastuak, guztira	6.134.472	900.506	7.034.978	3.821.253	54,32	3.660.007	95,78	161.246

2. ERANSKINA.- AURREKONTUKO EMAITZAREN KALKULUA

Aitorturiko eskubideak (2006)	5.360.586,88
(Aitorturiko betebeharrak, 2006)	3.821.253,15
Aurrekontu emaitza	1.539.333,73
(Urteko finantzaketa-desbideraketa positiboak)	1.420.407,30
Urteko finantzaketa-desbideraketa negatiboak	156.947,87
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	201.701,92
AURREKONTU EMAITZA DOITUA	477.576,22

3. ERANSKINA.- DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2006ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	Saldoa
Indarreko ekitaldiko eskubideak, kobratzeko daudenak	2.677.408,60
Itxitako ekitaldiko eskubideak, kobratzeko daudenak	270.609,02
Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	6.395,75
Ordainketen itzulketak	0,00
(Dirubilketa zaileko eskubideak)	-129.451,22
(Aplikatzeko dauden dirusarrerak)	-1.583,40
Kobratzeko dauden eskubideak	2.823.378,75
Indarreko ekitaldiko betebeharrak, ordaintzeko daudenak	161.245,88
Itxitako ekitaldiko betebeharrak, ordaintzeko daudenak	1.351,94
Dirusarreraren itzulketak	0
(Aplikatzeko dauden gastuak)	0,00
Aurrekontuz kanpoko gastuak	156.654,00
Ordaintzeko dauden betebeharrak	319.251,82
Diruzaintzako funts likidoak	935.081,87
Finantzaketa-desbideraketa metatu negatiboak	-
Diruzaintza-gerakina, orotara	3.439.208,80
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintza-gerakina	624.398,05
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	1.289.108,60
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.525.702,15

4. ERANSKINA.- 2006ko RATIOAK

Adierazlea	2006
Dirusarrerren betetze-maila	%76,20
Gastuen betetze-maila	%54,32
Kobrantzen betetzea	%50,05
Ordainketen betetzea	%95,78
Zorpetze-maila	%3,22
Zorpetze-muga	%16,53
Zorpetze-ahalmena	%13,31
Aurrezpen garbia	%13,31
Langileriaren indizea	%25,51
Inbertsioaren indizea	38,77%
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (1)	%36,40
Dirusarrerak biztanleko	1.427
Gastuak biztanleko	1.017
Dirusarrera arruntak biztanleko	718
Gastu arruntak biztanleko	603
Tributuen bidezko dirusarrerak biztanle bakoitzeko	316
Finantza-zama biztanleko	23
Zorra biztanleko	398

(1) Ez ditu barnean hartzen zazpigarren kapituluko urbanizazio kuotak.

5. ERANSKINA. BALANTZEA 2006ko ABENDUAREN 31n**AKTIBOA**

Izena	2006	2005	Aldea
1 - Ibilgetu materiala	9.032.026	8.370.304	661.722
2 - Ibilgetu ez-materiala	618.182	516.481	101.701
3 - Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	4.440.096	3.758.765	681.331
4 - Herri ondasunak	-1.114.430	594.811	-1.709.241
5 - Ibilgetu finantzarioa	240	240	
A IBILGETUA	12.976.114	13.240.601	-264.487
7 - Izakinak			
8 - Zordunak	2.945.545	1.153.610	1.791.934
9 - Kontu finantzarioak	1.072.848	1.325.554	-252.706
10 - Egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak			
11 - Aplikatzeko dagoen emaitza			
C IBILKORRA	4.018.392	2.479.164	1.539.228
AKTIBOA, GUZTIRA	16.994.506,74	15.719.765	1.274.742

PASIBOA

Izena	2006	2005	Aldea
1 - Ondarea eta erreserbak	7.306.931	7.306.931	
2 - Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	4.905.543	4.411.951	493.592
3 - Kapital-dirulaguntzak	2.977.579	2.132.796	844.783
A FUNTS BEREKIAK	15.190.053	13.851.678	1.338.375
4 - Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	1.483.619	1.558.125	-74.506
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	1.483.619	1.558.125	-74.506
Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez			
5 - kanpokoak	319.252	297.601	21.651
Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko			
6 - doitzeak	1.583	12.362	-10.779
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	320.835	309.963	10.873
PASIBOA, GUZTIRA	16.994.507	15.719.765	1.274.742

Nafarroako Comptos Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia.

Behin-behineko izendapena

Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia Lehendakaritza honen 2007ko abuztuaren 10eko Ebazpenaren bidez onetsi zen. Izendapen proposamena 2008ko 69. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 4an, eta 2008ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian, maiatzaren 30ean, ondokoen alde: Karen Moreno Orduña andrea eta Miguel Angel Aurrecochea Gutiérrez jauna, txanda irekian, eta Ainara Rodríguez Jiménez andrea, txanda irekian, euskarekin. Hortaz, deialdiko 8. oinarrian xedatutakoari jarraikiz, izangaiek 7.3 arauko agiriak aurkeztu baitituzte, bidezko da proposatutako izangaien behin-behineko izendapena egitea, lanpostuaz behin-behinekoz jabetu eta sei hilabeteko praktikaldiari hasiera emateko, deialdiko 9. oinarrian agindu bezala.

Arestian adierazitakoa kontuan hartuta, Lehendakaritza honek

ERABAKI DU:

Lehena. Karen Moreno Orduña andrea, Miguel Angel Aurrecochea Gutiérrez jauna eta Ainara Rodríguez Jiménez andrea Nafarroako Comptos Ganberako funtzionario izendatzea behin-behinekoz, auditoretzako teknikarien kategoriarekin.

Bigarrena. Funtzionarioaren behin betiko izendapena lortzeko, interesdunek sei hilabeteko praktikaldia gainditu beharko dutela ezartzea. Izangai-ek beren lanpostuaren jabetza behin-behinekoz hartzen duenean hasiko da praktikaldi hori.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila eta Comptos Ganberako idazkari nagusiari eta interesdunei jakinaraz dakiela agintzea, izendatuek deialdiko lanpostuak har ditzaten, behin-behineko izendapen hau jakinarazten denetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 28an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

AKATS ZUZENKETA

Arartekoaren kontu orokorrari buruzko 2007ko ekitaldiko fiskalizazio txostena argitaratzean akatsa egin dela ikusienez –2008ko abuztuaren 11ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, zuzendu egin behar da, honako akats zuzenketa argitaratuz.

Aldizkariko 15. orrialdean, atal hau ageri da: “Nafarroako Comptos Ganberak 2006ko ekitaldiari buruz egindako fiskalizazio-txosteneko gomendioak noraino bete diren”. Aldizkariko 16. orrialdean,

berriz, honakoa: “2007ko ekitaldiari dagokion erregelartasun fiskalizazioaren iruzkinak, ondorioak eta gomendioak”. Atal horiek ez direnez fiskalizazio txostenekoak, behin betiko txostena 15. orrialdean amaitzen da, hitz hauekin: “Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko ekainaren 20an

Jarduneko lehendakaria: Luis Ordoki Urdazi